



ARANTZAKO UDALA

Arantzako Udaleko jarduneko alkateak, 2023ko urriaren 11n, osoko idatzirik dagoen honako Ebazpena onartu du:

137/2023 EBAZPENA, URRIAREN 11KOA, ARANTZAKO UDALEKO JARDUNEKO ALKATEARENA, “ARANTZAKO OSIÑA KARRIKAKO (2. EREMUA) PABIMENTAZIOAREN KONPONKETARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO OBRA, OBRAS Y SERVICIOS URGENTES, S.L. ENPRESARI ESLEITZEN DION 113/2023 EBAZPENA ESLEIPEN KOPURUA EGOKITUZ ALDATZEN DUENA.

Ikusirik Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak apirilaren 29ko 27E/2023 Ebazpenaren bidez onetsi dela Toki Programazioa atalaren "Zoladura-lanak sarerik gabe" inbertsio-lerroko 2023-2025 plangintza aldiko zerrenda hauek: aurrekontu baliabideen kargura behin-behinean sartutako inbertsioen zerrenda, erreserban dauden inbertsioen zerrenda, eta onartu ezin diren inbertsioen zerrenda.. Halaber, Arantzako Udala “ARANTZAKO OSIÑA KARRIKAKO (2. EREMUA) PABIMENTAZIOAREN KONPONKETARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA” dirulaguntzaren onuradun sortatu da.

Ikusirik Arantzako Udaleko jarduneko alkatearen irailaren 11ko 113/2023 Ebazpen bidez ARANTZAKO OSIÑA KARRIKAKO (2. EREMUA) PABIMENTAZIOAREN KONPONKETARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA” exekutatzeko obra OBRAS Y SERVICIOS URGENTES, S.L enpresari esleitu zitzaioela, 5.805,00 €-ko kopuruan, BEZa kanpo.

Ikusirik gaizki ulertu bat dela medio, aurkezturiko aurrekontuak ez zuela “ARANTZAKO OSIÑA KARRIKAKO (2. EREMUA) PABIMENTAZIOAREN KONPONKETARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA” bere osotasunean exekutatzeko biltzen. Horrela bada, 2023ko urriaren 10ean OBRAS Y SERVICIOS URGENTES, S.L. enpresak aipaturiko obra exekutatzeko aurrekontu egokitu bat aurkeztu zuen, honen kopurua 11.233,43 €-koa izanik, BEZa kanpo.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 81. artikuluan xedaturikoaren arabera, obra kontratuaren esleipena zuzenean egin daitekeela, zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezia aplikatzen baitaio.

EBATZI DUT:

1) “ARANTZAKO OSIÑA KARRIKAKO (2. EREMUA) PABIMENTAZIOAREN KONPONKETARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA” exekutatzeko obra OBRAS Y SERVICIOS URGENTES, S.L enpresari esleitzen dion 113/2023 Ebazpena aldatzea, obraren esleipen kopurua **11.233,43 €-ko kopuruan zehaztuz, BEZa kanpo.**

2) Esleipendunari jakinaraztea aipaturiko obra exekuzio proiektuan xedaturikoaren arabera eta obra zuzendaritzak dioenaren arabera egin beharko duela.

3) Esleipendunari jakinaraztea, adierazitako obra 2023ko urriaren 31rako amaitua egon beharko duela.

4) Ebazpen hau esleipendunari jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, ohartaraziz aipatutako akordioaren aurka tarteka ditzakezula ondoko helegite hautarikoren bat:

- Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpen jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

- Zuzenean, administrazioarekiko auzi-helegitea Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

- Berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpen jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.



ARANTZAKO UDALA

Arantzan, 2023ko urriaren 11n.

**JARDUNEKO
ALKATEA,**

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Dabid Iturria Almandoz

Nagore Madariaga Iriarte

OBRAS Y SERVICIOS URGENTES, S.L.-